

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Antolakuntza, giza baliabideak eta zerbitzuaren kalitatea
MODALITATEA:	Lineakoa
HIZKUNTZA:	Gaztelania

LIDERAR EN MOMENTOS DE INCERTIDUMBRE

KODEA 2019-24-14-1

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA	45 ordu	GEHIENEZKO KOPURUA	12 lagun	IKASTARORAKO SARBIDEA	http://autoprestakuntza.euskadi.eus	
HARTZAILEAK	Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak					
HAUTATZE IRIZPIDEAK	Lan-taldeak koordinatzen, zuzentzen eta lideratzen dituzten profesionalak. Proiektu-taldeak, berrikuntza-taldeak, ikaskuntza-taldeak integratzen dituzten profesionalak, haien ingurunean aldaketak edo hobekuntzak egin nahi dituztenak. Inguru eta esparru desberdinekin kontaktuan dauden teknikariak, eta kudeaketarako jardunbide egokiak ezagutzea nahi dutenak.					
BALDINTZAK	-Helbide elektroniko bakarra ikasle bakoitzeko -korporazio-saretik kanpoko posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak					
ESKAKIZUN TEKNIKOAK	SOFTWAREA: <ul style="list-style-type: none"> Windows XP edo berriagoa Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua) Adobe Flash Player 10 edo berriagoa Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua) Internetarako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik HARDWAREA: <ul style="list-style-type: none"> PC Pentium III edo berriagoa Soinu-txartela Entzungailuak edo bozgorailu independienteak 					
TUTORETZA	Tutorearen egitekoak: <ul style="list-style-type: none"> ➢ Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea. ➢ Kontsultei erantzutea: <ul style="list-style-type: none"> • ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez • 24 orduko epean erantzutea ➢ Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea. 					
HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIOAK	BAJEN JAKINARAZPENAK (ez dakar matrikula-kosturik)
MAIATZA	Maiatzaren 6a	Uztailaren 5a	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	ONIRITZI EPEA	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	MAIATZAREN 3a arte
			Apirilaren 1a	Apirilaren 2tik 5era	Apirilaren 5a	
			BANAKAKO 1. TUTORETZA	1.TAILERRA	2.TAILERRA	BANAKAKO 2. TUTORETZA
			3.-4. astea	maiatzaren 24a	ekainaren 21a	7.-8. astea
			online	Lakua Ilko sotoan, 25. Gela 9:00-13:30		online

ZER LORTU NAHI DUGUN

HELBURU OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> ➢ Ingurune aldakor baten eskaintzen dizkigun aukerez baliatzen ikastea. ➢ Lantalde baten behar bezalako burua izaten laguntzen duten faktoreak identifikatzea. ➢ Etengabeko hobekuntzarako kultura sortzeko esperientzia-trukaketa sustatzea.
--------------------------	---

LIDERAR EN MOMENTOS DE INCERTIDUMBRE

HELBURU ZEHATZAK

- Aldaketekin bat datozen eredu eta egiturak identifikatzea.
- Aldaketa-eredua lan egiten dugun ingurunearen arabera egokiagoa dela aitortzea.
- Lantaldeen eta lidergo-prozesuen funtzionamendua hobeto ulertzea.
- Gure emaitzetan emozioek duten funtzioa ulertzea.
- Antolakundeetan ikaskuntzaren testuingurua kokatu eta ezagutaraztea, ezagueraren kudeaketa, komunikazioa eta feedback-aren bitartez.

GAITASUNAK

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da:

- Aldaketa blokeatzen duten norberaren zailtasun eta erresistentziak identifikatzen jakiteko,
- Taldeen lidergo eraginkorrari lotutako jokabideak zeintzuk diren hautematen jakiteko.
- Elkarrekintza, esperientzia- eta ideia-trukaketa eta etengabeko hobekuntzari laguntzen dioten jokabideak garatzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

Autoprestakuntzako online ikastaroa, teoria eta praktika uztartuz. Ikastaroak 3 gai-multzo ditu, irakasleak egindako edukia du, baita hainbat material didaktiko ere, hala nola, artikulua, bideoak eta autoebaluazioko testak. Jarduerekin borobilduko da ikastaroa: plataforma birtualean egin eta gero, tutoretza eta tailerretara eraman behar dira banaka edo taldean lan egin ahal izateko.

Ikasleak gai-multzo bakoitzeko gai bat aukeratuko du bere lanpostuaren baitan proiektu pertsonal gisa abian jartzeko. Une oro, ikasleak, tutore modura, irakasle baten laguntza izango du. Ikastaroa zuzen nola egin erakutsiko dio.

ALDAKETAREN KUDEAKETA

- Ingurune egonkorak vs. ingurune aldakorak: egitura ingurunearekin bat edo ingurunearen kontra ezartzen denean. Non kokatzen gara?
- Aldaketa motak
- Aldaketaren faseak
- Zergatik egin ohi diegu kontra aldaketei.
- Arrakastarako faktoreak
- Rolak aldaketaren kudeaketan
- Zein aldaketa ikusten ditugun gure lan-ingurunean. Nola presta gaitzke aldaketara

PROGRAMA

ALDAKETARAKO LIDERRAK

- Liderraren eginkizuna: Emaitzak hobetzea eragiten duten jokabideak.
- Ekipoak eta taldeak
- Taldeari laguntzen dioten faktoreak: adimen emozionala, laneko klima, motibazioa eta aintzat hartzea, beste faktore batzuk.

HOBETZEKO KULTURA

- Kalitatezko kultura herritarrengana orientatzea.
- Akatsak ikasteko aukera gisa.
- Ezagutza: Ikaskuntza sortu, hedatu eta neurtzea.
- Gure emaitzak Eginkizuna eta feedback-a

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren **Helburua** izango da ikastaroaren helburu orokorrak eta berariazkoak betetzen direla bermatzea.

Ikastaroaren ebaluaketak **9 ariketa** praktiko ditu, 3 gai-multzo bakoitzeko, eta tutoretzak ere; 2 banakako online egin beharrekoak (ordu bat eta erdi, gehienez) eta beste 2 taldekako tailerrak aurrez-aurre egitekoak (4 ordu eta erdi, gehienez).

Ikasleak jarraibidek izango ditu ariketak egiteko eta plataforma birtualean eginda geratuko dira. Ondoren, banakako eta taldeko saioetan egindako ariketekin lan egingo dute ikasleek, horregatik, ezinbestekoa da jarduerak egitea saioetara joateko:

- 1. banakako saiorako: 2. ariketa, eta 2. banakako saiorako 9. ariketa
- 1. taldekako saiorako: 1., 3. eta 4. ariketa, eta 2. taldekako saiorako: 5., 6., 7. eta 8. ariketak

LIDERAR EN MOMENTOS DE INCERTIDUMBRE

Tutoreak edukiak ikasi eta jarduerak egiteko gomendatutako epeak markatuko ditu, eta plataforman jarriko ditu banakako eta taldekako saioaren egutegia.

Aprobetxamenduaren ebaluazioa:

- Gai-multzo bakoitzari dagozkion ariketa guztiak egitea.
- Ariketak denon artean eta aurrez aurre zuzentzea taldekako 2 tailerretan
- Aukeratutako ekimenaren jarraipena banakako 2 saiotan egitea, online.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio-inkesta.
Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

Aprobetxamendu-ziurtagiria eskuratzeko bete beharreko baldintzak:

- Ikastaroko jarduerak guztiak egin
- Gutxienez, 6 jarduera gainditu (bloke bakoitzeko 2)
- Banakako 2 saioetara joan eta parte hartu, eta taldekako saio batera gutxienez (2.tailerrera)

ZIURTAGIRIA

Kalifikazioa *Gai* izateko irizpideak:

- Galdera guztiak argudiatu, hau da, egindako galderaren inguruko ikuspuntua adierazi, edota testuko informazioa gehitu hala badagokio, behintzat, argudiatutakoa indartzeko, garrantzia edo erabilera adierazteko, praktikan jartzeko zailtasunak, abantailak edo aukerak agerian jartzeko.

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

291€

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)

Laguntza teknikoa

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara

LAGUNTZA

Aministrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus